

## Entzumen-proba C1 MAILA

EREDUA: **3**

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Entzumen-proba	10	20	25 minutu inguru

## ENTZUMENA

Jarraian, Euskadi Irratitik hartutako **hiru testu** entzungo dituzu. Testuak **bi aldiz** entzungo dituzu.

### 1. TESTUA

Orain, **minutu 1** duzu **lehenengo testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Erantzun okerreetatik ez da punturik kenduko.*

1. **Zergatik erabaki zuten Haiku Travel agentziakoek bidaia kolaboratiboak egiten hastea?**
  - a. Bidaia-agentziak astindua behar zuelako, enpresa-ikuspuntuaren aldetik.
  - b. Nepaleko biztanleei laguntzeko modu eraginkorrena bidaiariak eramatea zelako.
  - c. Aukera ona iruditu zitzaielako bidaia komertzialen bidez jendearen kontzientzia pizteko.
  
2. **Zer arrisku sumatu du Nagore Arriagak?**
  - a. Bidaia-agentziek *solidario* kontzeptua marketin hutsagatik erabiltzea.
  - b. Bidaia kolaboratiboen azpian beste interes batzuk ezkutatzea.
  - c. Agentziak gai ez izatea bidaia kolaboratiboen eskaera asetzeko.
  
3. **Zer dute komunean Haiku Travelek eta GKEek?**
  - a. Bien xede behinena da arazoak dituzten herrialdeei laguntzea.
  - b. Biak elkarlanean aritzen dira garapen bidean dauden herrialdeetan.
  - c. Biek laguntzen diete egoera txarreko herrialdeei, zeinek bere neurrian.

**IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN**

## ENTZUMENA

### 2. TESTUA

Orain, **minutu eta erdi** duzu **bigarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

#### 1. Obra baten bukaera dela eta, zer dio Harkaitz Cano idazleak?

- Beti izan duela gustuko irakurleari bukaera zein izango den asmatzen laguntzea.
- Aldez aurretik bukaera zein izango den pentsatzeak lagundu egiten diola sortze lanean.
- Bukaera aurreikusi eta irakurlea lekuz kanpo uztea ere bilatzen duela.

#### 2. Zein da Canoren ustez obra baten bukaera irekia?

- Irakurlea zein ikuslea erdibidean uzten duena.
- Betiko gure buruan iltzatuta edo izoztuta geratzen dena.
- Bukatu gabe ere, bukaera bat iradokitzen duena.

#### 3. Noiz emango dugu istorio bat bukatutzat?

- Borgesek zioenaren arabera, sinesteari uzten diogunean.
- Egileak berak puntu horretara heldu dela erabakitzen duenean.
- Istorioak berak ez duenean ez aurrera ez atzera egiten.

#### 4. Zein da bukaera ona?

- Ikuslea harritu, baina, aldi berean, konbentzitu egiten duena.
- Tragediaren eta komediaren erdibidean geratuko litzatekeena.
- Txarto bukatuko dela ematen duen arren, ondo amaitzen dena.

*IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN*

## ENTZUMENA

### 3. TESTUA

Orain, **minutu 1** duzu **hirugarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kenduko.*

**1. Zer dio Igor Stravinskiri buruz?**

- a. Aitak zuzenbidea ikastea nahi bazuen ere, musikaren aldeko hautua egin zuela.
- b. 20 urterekin musika irakasle ospetsuenen artean nabarmendu zela.
- c. Etxeko inguruneak eraginda, bizimodua musika mundura bideratzea erabaki zuela.

**2. Zer dela eta aipatzen da 1913an Parisen estreinatu zuen obra?**

- a. Ordura artekoak ez bezalako balleterako obra izan zelako.
- b. Jarraitzaileen eta gaitzesleen artean eztabaida sutsua eragin zuelako.
- c. Stravinskik jasotako estilo ugariren lehen adierazlea izan zelako.

**3. Laburbilduz, zer esan dezakegu Igor Stravinskiri buruz?**

- a. Haren sortze-lanak aldikadak izan bazituen ere, ballet-obrak landu zituela batez ere.
- b. Iturri askotatik edan eta musika-estilo guztiak landu zituela.
- c. Europatik AEBetara alde egindakoan zabaldu zela haren musika mundu osoan.

*IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN*